



Leire Milikua Larramendi
Arkitektoa eta erredakzio-kontseiluko kidea.

Jasotze-data: 2015-03-11
Onarpen-data: 2015-04-01

«Ikuspuntu gordinaren ezinegona bilatu nahi izan dut».

Iñaki Landa Fuentesekin solasean

=====

Ohiko bidearen kontrara, Diseinu Grafikoko ikasketak burutu ondoren lizentziatu zen Arte Ederretan Iñaki Landa Fuentes (Portugalete, 1981). Haren lanetan diziplina biok eskutik dihardute nabarmen, eta ez da erraza bata non hasten den eta bestea non bukatzen den esatea. Haren artelanak toki eta euskarri ezberdinetan izan genituen iaz ikusgai: Explora Festibalean (Bilbo), Colectivo Tecolote mexikarrek Vestusta Morla taldeari eskainitako tributu ilustratuan, edota Arteupartek argitaratutako fanzine formatuko ale berezian, besteak beste. Horrez gain, Bilboko Arte Liburu Azokako bi edizioen, eta Pop Pilulak eta KLOF fanzineen diseinu grafikoaren atzean aurkituko dugu. Azkenengo horren sortzailea ere badugu, gainera.

Irudi bitxia eskaini diguzu azal honetarako, irakurketa anitz egiteko aukera ematen digun paisaia berezia. Zein da egilearen irakurketa, ordea?

Espazio publiko zein pribatuaz pentsatzen dudanean, hiri datorkit burura, gaur egungo gizarte-eredu kapitalistaren agertoki perfektu bezala. Eta agertoki hori da irudikatu nahi izan dudana, era oniriko batean.

Inguratzen gaituen espazioa zurruna ikusten dut, eta horrekiko modu kontrajarrian, erraietatik ateratako forma organikoetan oinarritzen dira eraikuntzak eta irudiaren gainontzeko elementuak. Ikuspuntu gordinaren ezinegona bilatu nahi izan dut.

Eta irudikatu duzun agertoki horrek ba al dauka espazio publikorik?

Alde batetik eraikuntzak ditugu. Hiri tipo baten argazkia



Irudiaren egilea ~ Pirati

gauzatzea izan da helburua, hierarkia sozialaren emaitza arkitektonikoa, forma hipnotiko eta erakargarriko etxe orratz handi eta etxe xumeek osatzen dutena... Espazio pribatuak.

Gainontzeko espazioa hondarretatik jaiotakoa da, ezleku anitzen batuketa, zuzendutako bizimodu bat garatzeko gune aproposena. Zerbitzu guztiak, aukera guztiak, zapora guztiak, kolore guztiak zure esku. Hiri horrek aisialdi eta gozamenerako eskaintzen duen espazio(publiko)a, karameluzko hiru makil handi horiek osatuko lukete. Horrela ulertzen dut egun eskaintzen zaiguna: ahoak gozatzeko (eta isiltzeko) espazio hutsalak, indibidualak, eskalaz kanpokoak, funtziorik gabekoak...

Eta irudiaren behealdean, hiri-eredua mugiarazten duen makineria handia dago.

Zerua betetzen duten goxokiak ere ikusten ditugu guk, itotako hilotzekin batera...

Bai halaxe da, goxokiak dira. Espazio hutsak (fisiko zein mentalak) edertasun artifizialarekin betetzearen derrigortasuna, entretenimendu gisa funtziona lezakeena. Ez dago irtenbiderik, ezta zeruan ere.

Bestetik, hiriak eskaintzen dituen «goxoki» handietara ailegatu nahi izan duten pertsonen hilotzak daude...

Hiri «erreal»etara salto eginez, bizitokia Bilbon daukazu egun. Kulturari dagokionez, azkenaldian sorkuntzari lotutako espazio berrien ugaritze bat izan dela esango genuke, espazio fisikoez haratago, autoedizioaren eskutik batik bat (musika-ekoizpenak, era guztietako argitalpenak...). Geografikoki guztiz proiektu irekia dela ikusi dugun arren, egoki ikusten al duzu KLOF Fanzinea mugimendu honi egindako ekarpen txoa dela esatea?

Bai, nola edo hala, DIY filosofiari jarraiki doa. KLOFen tankerako fanzine ugari daude BALA eta Guillotina bezalako festibaletan ikus daitekeenez, baita bestelako proiektu autoekoitziak ere: arropa, musika... Joera indartsu bat dela esango nuke.

KLOF jolas moduan hasi genuen bi lagun artean. Munduaren amaiera zetorrelako aitzakiarekin 2012. urtearen bukaeran deialdi irekia egin genuen Internetez, lagun artean batez ere, gai horri lotutako ekarpenak argitalpen digital batean biltzeko. Hain harrera ona eduki zuen, ezen hilabetekari bihurtu eta inprimatzen hasi ginen... Zenbait aldaketa jasan ditu bidean gaur arte: orain hiruhilabetekaria da, ni bakarrik gelditu naiz arduradun, eta formatua tamainaz handitu da. Fase berri honetan, musikari ere ateak ireki zaizkio: #12 Underground alean Espainia mailako taldeekin burututako lehen konpilazioa egin zen, eta #14 eta #15 zenbakiak kontzertuekin batera aurkeztu ditugu.

Parte-hartzaileen kopuruak gora egin du aletik alera, munduko txoko desberdinetatik jasotzen ditugu ilustrazioak, testuak... Askotariko izaera duen argitalpena dela esango nuke, inoiz marraztu edo idatzi ez duen pertsona baten ekarpenak El Roto, Malagon, Escif, Ainara LeGardon edo beste hainbat artistaren ekarpenekin batera jasoak izan dira.

Bakoitzaren pusketa pribatuak, publiko bilakatzeko espazioa da orduan.

Paralelismo ezin hobea! Horrela da bai. Behin ale bakoitzeko gaia luzatuta, parte-hartzaileek ekarpenak egiten dituzte, norberak bere iritzi, esperientzia, edo buruhausteekin dator collage, idazki, poema zein ilustrazioak bidaliz. Beraz, norberaren pribatutasunetik datorren sormena, liburu-denda edo Internet bezalako espazio publiko zehaztugabe batean partekatzen dela esan genezake, ekarpen moduan.

Irakurleei gonbidapena luzatuko al diegu?

Bai, noski! Lau bat ale argitaratzen ditugu urtean, eta bakoitza gai monografiko baten inguruan aritzen da. kloffanzine.tumblr.com webgunean kontsulta dezakezue une bakoitzeko deialdia, eta zuen ekarpenak kloffanzine@gmail.com helbidera bidali. Ongi etorriak izango dira lan guztiak!

Eta bukatzeko, non izan dezakegu zure (lanen) berri?

Bada webgune propioa egin arte, hementxe dituzue nire ilustrazio, argazki eta diseinu-lanak: <https://www.flickr.com/photos/kaktusak>

===